

AZTERLANen SEGURTASUN- ETA OSASUN- POLITIKA

AZTERLAN irabazi-asmorik gabeko zentro teknologiko pribatua da, helburutzat duena ezagutza sortzea, erakartzea eta transferitzea metalurgiaren eta material metalikoak eraldatzeko teknologien esparruan, bai eta balio erantsi handiko zerbitzuak ematea ere, ehun industrial metal-mekanikoaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

AZTERLANeko Zuzendaritzak erakundeko kide guztien segurtasun- eta osasun-baldintzak etengabe hobetzeko lan egiteko konpromiso irmoari eusten dio. Horretarako, beharrezkoak eta egokiak diren instalazioak, materiala eta ekipoak ditugu. Halaber, erakundeak konpromisoa hartzen du aplikagarri zaizkion lege- eta erregelamendu-eskakizunak betetzeko, arriskuak ezabatzeko eta segurtasun- eta osasun-arriskuak murrizteko, zentro teknologikoak sinatzen dituen eskakizun guztiekin batera.

Helburu horiek gauzatzeko, AZTERLANek adierazten du Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema bat ezartzeko eta eguneratuta mantentzeko asmo irmoa duela, indarrean dagoen UNE EN ISO 45001 Nazioarteko Arauaren jarraibideetan oinarritua, zentroaren beharretara egokitua. Hauek dira ondorioztatzen diren ekintzak:

- Lanarekin lotutako lesioak eta osasunaren narriadura prebenitzea, eta lantoki seguruak eta osasungarriak eskaintzea.
- Sistemaren eraginkortasuna lortzeko beharrezkoak diren ahaleginak eta aldaketak egitea.

Zentroko zuzendaritzak urtero zehazten ditu segurtasun- eta osasun-helburuak eta horiek lortzeko funtsezko baliabideak, eta aldi bakoitza amaitzean helburu horiek betetzen diren aztertzen du.

Segurtasun eta Osasun Politika hau onartuta, AZTERLANeko Zuzendaritzak konpromisoa hartu du berau betetzeko, eta konpromisoa hartu du erakunde osoan zabaltzeko, ezartzeko eta egunean mantentzeko, kontuan hartuta ezarritako helburua kide guztien parte-hartzearekin eta ahaleginarekin soilik lor daitekeela.

Politika hau zentroaren jardueran zuzenean edo zeharka inplikaturik dauden eragile eta alderdi interesdunen eskura dago.

Fco. Javier González Azpiri
Zuzendari Nagusia